



Arartekoaren 2018R-2131-17 Ebazpena, 2018ko apirilaren 13koa. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio herritar baten diru-sarrerak bermatzeko errentaren iraungipena indargabetu dezan. Izan ere, egiaztatu da bigarren etenaldiak ez duela behar adinako lege babesik, eta ondorioztatu da iraungitze horrek dakartzan ondorioak neurritz kanpokoak direla eta ez datozela bat adingabearen interes gorena errespetatzearekin.

Aurrekariak

1.- Herritar batek Arartekoarengana jo du, eta adierazi du ez dagoela ados Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzea erabaki izanarekin; pertsona horri prestazioak bi aldiz eten dizkiote 2 urteko indarraldian, eta horregatik erabaki du Lanbidek horiek iraungitzea. Hona hemen prestazioak bigarren aldiz eteteko arrazoia: Euskal Autonomia Erkidegotik atera izana; kexagilearen esanetan, egun bakarra eman zuen kanpoan, bere eta seme-alaben pasaporteak berritu behar zituelako.

2.- Zehazki, hauxe zioen 2017ko uztailaren 20ko ebazpenak, interesdunari prestazioak iraungi zizkionak:

“-Prestaziorako eskubidea aldatzea, etetea edo azkentzea ekar dezaketen eta ondoren adierazten diren gertakariak ez jakinaraztea, sortzen diren unetik aurrera zenbatzen hasi eta gehieneko hamabost eguneko epean:

Titularrak Madrilera joan izana, EAetik kanpo, ez du ukatu, eta adierazi du egun bakarrean egin zuela, baina dokumentazioan agertzen denez egun batzuk izan dira. Gainera ez du Lanbiden komunikatu ez izanaren arrazoia justifikatu.

-Prestazioaren indarraldiaren bi urteko epea ez betetzeagatik bi aldiz gabetu izana: DBEa ematearen aldiaren bigarren etetea. Aurreko etetea 2016/REV/053086 berrikuspenaren bidez eman zen, eta ebazpena baietzi egin zen 2016/REC/003253 berraztertzearen errekurtsoarekin.

Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 20.3 artikulua aplikatuz, titularrak ezin izango du DBEa eskatu azkentzetik urte bete pasa arte.” (sic)





Kexagileak alegazio idazki bat aurkeztu zuen 2017ko maiatzaren 24an, eta ondoren, 2017ko abuztuaren 8an, prestazioa iraungi zion ebazpenaren aurkako aukerako berraztertze errekurtsoa jarri zuen. Bi idatzi horietan adierazi zuen egun bakarra eman zuela EAetik kanpo. Txartelak maiatzaren 4an erosi zituen, eta egun horretan bertan egin zion pasaporteengatiko banku transferentzia Boli Kostako enbaxadari; hala ere, interesdunak dio joan-etorriko bidaia maiatzaren 6an egin zuela.

Espedientean jasotako dokumentazioak egiaztatzen du joan-etorriko bidaia maiatzaren 6an egin zuela; zehazki, maiatzaren 6ko itzultzeko txartelen kopia aurkeztu zuen eta, horrekin batera, Gasteizko merkataritza gun e ezagun batean maiatzaren 5ean egindako erosketak biltzen zituzten banku mugimenduen kopia erantsi zuen.

3.- Azaldutakoa ikusita, Arartekoak lankidetz a eskaera bat bidali zion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari eta Lanbidek bi prestazioak iraungitzeko arrazoi zehatzak azaltzeko eskatu zion. Hauxe eskatu genion, zehazki:

- Ea zer oinarri juridiko hartu duen kontuan Lanbidek kexagilearen prestazioa eteteko.
- Ea zer iritzi duzun informazio eskaera honetan jasotako aurretiko gogoeten inguruan. Zehazki, proportzionaltasun printzipioa eta adingabearen interes gorena aintzat hartu ote diren.
- Ea zer egoeratan dauden kexagileak 2017ko abuztuaren 8an aurkeztutako errekurtsoaren izapideak. Errekurtsoa ebatzi bada, arren, helaraz iezadazu ebazpenaren kopia.
- Kexaren xedearekin erlazionatuta dagoen eta gure jardunerako interesgarria izan daitekeen beste edozein inguruabar.

Horrez gain, Arartekoak alde z aurretiko zenbait ohar helarazi zizkion sail horri EAetik kanpora egindako irteerak jakinarazteko betebeharrari lotuta; ez errepikatzearren, jarraian jasoko ditugu.

4.- Horri erantzunez, azalpen hauek igorri dizkigu sail horrek:





“Jasotako idazkia aztertu ondoren, egiaztatu dugu berraztertze-errekurtsoa 2017ko abenduaren 11n ebatzi zela, eta atzera bota zela.

Hain zuzen, errekurtsio horretan jasota dagoen moduan eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak 12.2.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrek eta haien bizikidetzaren unitatean lan egiteko adinean dauden gainerako kideek lanerako prest egon behar dute, zehazten diren salbuespenetan izan ezik, baina errekurtsio-jartzaileari ezin zaio salbuespen horietako bat bera ere aplikatu. DSBE prestazioa jasotzen dutenek EAetik egindako irteera eta sarrera guztiak jakinarazi behar dituzte. Une horretan lan egiten ari ez diren titularrei EAetik kanpo 15 egun emateko aukera onartzen zaie, pentsatzen baila pertsona orok merezi duela atsedean hartzea bizi den lekutik kanpo eta lurraldetik ateratzeko eskubidea duela; alabaina, sarrerak eta irteerak jakinarazi egin behar dizkiote Lanbideri, EAetik kanpo dauden denboran baja ematen zaielako enplegu-eskatzaile moduan.

XXX XXX errekurtsio-jartzaileak ez zuen jakinarazi Madrilera zihoanik, eta betebeharrak hori zuten, berak ere aurkeztutako berraztertze-errekurtsioan onartu zuen moduan. Hortaz, ez zuen bete aipatutako betebeharrak Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak 28.1.e) artikuluan xedatutakoari jarraituz, bidezkoa da DSBEa bertan behera uztea arau-hausteengatik bi etenaldi izan baditu prestazioaren bi urteko indarraldian. Eta kasu honetan hala gertatzen da. Gogorarazi behar da aurreko etenaldia 2016/REV/053086 berrikuspenaren bidez egin zela, eta horren ebazpena berretsi zuela 2016/REC/003253 berraztertze-errekurtsioak.

Bestetik, aipatutako legearen 28.3 artikulua ere aplikatuko da. Horren arabera, prestazioa iraungitzeko arrazoia betebeharrak ez betetzea edo arauak haustea izan bada, titularrak (kasu honetan, XXX XXX-k) ezin izango du berriz ere eskatu diru-sarrerak bermatzeko errenta (edozein izanik ere modalitatea) eskubidea iraungi den unetik urtebete igaro arte.”

5.- Hortaz, beharrezkoak diren egitate eta zuzenbide elementuak ditugula uste dugunez, honako ondorio hauek ateratu ditugu:





Gogoetak

1.- Kexagileak eta bere seme-alaba adingabeek jasotzen dituzten prestazioak iraungitzea erabaki du Lanbidek, uste baitu bizikidetzaren unitatea Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28. artikuluan, prestazioak iraungitzeko kausei buruzkoan, aipatutako kasuan sartzen dela; Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko legea aldatu zuen azaroaren 24ko 4/2011 Legeak haxe dio 28. artikuluan e) atalean: “(...) *Ez betetzeagatiko bi eten egotea prestazioa indarrean dagoen bi urteko aldian*”.

Hona hemen prestazioa bigarren aldiz eteteko arrazoia: interesdunaren bizikidetzaren unitatea Madrileran joan izana, 2016ko maiatzaren 6an, Boli Kostako enbaxadan pasaporteak berritze aldera. Nortasun agiriak enbaxadari ordaindu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu ditu kexagileak administrazio izapide hori burutu zuela frogatzeko.

Arartekoak hainbatetan adierazi izan du gizarte prestazioak erregulatzen dituen araudiak ez duela ezartzen titularrek EAEtik kanpora egindako irteerak eta EAerako sarrerak jakinarazteko inolako betebeharririk dutenik. Hori dela tarteko, koherentziaz, kasu honetan ere Lanbideren erabakia, hau da, kexagileari prestazioak etetea, zalantzan jarri da. Prestazioak eten izana, jakina, erabakigarria izan da horiek iraungitzeko.

2.- Arartekoak orain dela gutxi aztertu du gai hori, *Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituenak, 2017¹* izeneko dokumentuan. Hain zuzen, Arartekoak kontu honen gainean ekarri nahi izan zuen arreta: Lanbidek egin behar bat bete dadin eskatzen duela, legegile autonomikoak hizpide dugun eskubide subjektiboa erregulatzen duen araudian halako baldintzarik jaso ez bazuen ere.

Betebehar hori, beraz, Lanbideren irizpideen dokumentuan bakarrik dago jasota. Barne irizpideen aplikazioaren ildotik, gogorarazi beharra dago enplegu erakunde

¹ **Arartekoa.** Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituenak, 2017. 5.3.2. puntua, 75. eta 137. orrialdeak [online eskuragarri]: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_4199_3.pdf



publiko horrek berak erakunde honi aurretik adierazi izan dionez, 653/2015 kexa espedientea izapidetzeko irizpideak honako hauek direla: *“arauak barnekoak dira, “ad intra” begirakoak; hots, erakundearen eta bere enplegatu publikoen arteko harremanei soilik dagozkie”*. Hala eta guztiz ere, kasu honetan egiaztatu denez, irizpideak aplikatzea barruko kontu bat izatetik araubideko elementu gisa aplikagarri izatera igaro da eta, horren baliozkotasuna, gutxienik ere, eztabaidagarria da.

Arartekoaren iritziz, eskaera hori betebeharretan (dela EAEn benetan bizitzeko betebeharra dela enplegurako prest egotekoa) subsumitzea zuzenbidearen aurkakoa da. Ikuspegi hori bat dator administrazioarekiko auzien jurisprudentziaren hainbat adierazpenekin.

Gauzak horrela, Administrazioarekiko Auzien Gasteizko 1. Epaitegiaren martxoaren 4ko 44/2015 Epaiaren bigarren oinarri juridikoa nabarmendu behar dugu. Horren bidez EAetik kanpora egindako irteerak ez jakinarazteagatik diru-sarrerak bermatzeko errenta eten zuen ebazpen baten aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsua balioetsi zen. Idatzi horrek honako hau ezarri zuen irteerak Lanbideri jakinarazi ez izanari lotuta: *“(…) no estamos ante incumplimiento de obligación alguna conforme al artículo 12, citado por la administración en la actuación impugnada, sin concretar la específica obligación incumplida y sin que el hecho referido pueda subsumirse dentro de la obligación contemplada en el citado precepto de comunicar cualquier cambio relativo al domicilio de residencia habitual de la persona titular, que es claro que no se ha modificado en el caso que nos ocupa”*.

Arartekoaren ustez, Lanbidek ezin du lotu EAetik kanpora egindako irteera bat ez jakinaraztea enplegurako prest egoteko betebeharrarekin; izan ere, betebehar hori zertan datzan argi eta garbi zehaztuta dago, eta ez du irteerak jakinarazteko betebeharra barne hartzen. Ikuspegi hori dagoeneko aztertu zuen 156/2016 Epaiak, uztailaren 11koak, Administrazioarekiko Auzien Gasteizko 2. Epaitegiarenak. Laugarren oinarri juridikoaren edukia jasoko dugu, hain zuzen ere, interesgarria eta garrantzitsua delako:

“Tal y como se desprende del expediente administrativo, con fecha 22/09/2015, XXX formula solicitud de renovación de RGI, aduciendo la administración demandada que no comunicó la salida efectuada entre 01/06/2015 y 02/07/2015 fuera de la CAPV. La parte recurrente no contraviene el expresado fundamento fáctico, y así se corrobora en el folio 8 del e.a. del examen de su pasaporte.



Siendo éste el motivo sobre el que la administración demandada sustenta su resolución de no renovación hemos de concluir que no se comparte el juicio alcanzado por la misma, no sin antes expresar la insuficiente motivación de la resolución impugnada, en la que no se conecta normativamente el incumplimiento al parecer detectado con la concreta prescripción que habría sido inobservada por la actora, siendo el acto del juicio, el primer momento en el que la asistencia letrada de la administración demandada permite una concreta identificación de la normativa que a juicio de Lanbide ha sido vulnerada. Resultando incontrovertido que la parte actora ha efectuado la salida fuera de la CAPV a la que se hace referencia, hemos de concluir que nada más que una salida puntual constituye el hecho acreditado, sin que del mismo quepa inferir una modificación sobrevenida de las circunstancias sobre las que se sustenta la concesión de la prestación, ni en modo alguno, que la actora haya cambiado su lugar de residencia efectiva, ni que ésta no se hubiera encontrado disponible para el empleo. Del examen de las cuentas presentadas no se deduce con la exigible claridad a efectos de sustentar la decisión hoy combatida que la actora hubiera destinado el importe de la RGI a finalidad distinta que la de satisfacer sus necesidades básicas. No habiendo sido por tanto acreditado el incumplimiento de las obligaciones sobre la que se residencia la decisión administrativa, procede la íntegra estimación del recurso contencioso administrativo".

Bidenabar, epai horrek aurreko bat aipatzen du, hain zuzen ere 2001/2015 Epaia, irailaren 30ekoa, argudio juridikoak emateko oinarri hartu dena. Alde horretatik, hauxe adierazi da:

"No encontramos en la legislación autonómica citada motivos o justificación para la retirada de la prestación subvencional por la ausencia de la CAPV de cinco días, pues no contempla la legislación estatal ni autonómica que ante tal ausencia se le deba retirar la prestación. (...)

Es la concreta regulación de las ayudas la que nos impide negar o retirar a quien se haya ausentado de la CAPV cinco días, por mucho que tenga que estar a disposición de Lanbide por posibles ofertas de empleo, manteniendo el empadronamiento y la residencia habitual, razón por la que, no podemos aceptar la retirada de la ayuda social, y debemos estimar el recurso".

3- Hizpide dugun kasuan, kexagileak azaldu du ez zuela egun bakarreko irteera horren berri eman ez zekielako betebeharrak hori zuenik. Gogora dezagun joan-etorri



horren helburu bakarra bere jatorrizko herrialdeak Madrilen duen enbaxadan bere eta seme-alaba adingabeen pasaporteak berritzea zela.

Aitzitik, askotan adierazi izan dugunez, eskubide subjektibo hori erregulatzen duen araudiaren artikuluetan ez da ezartzen EAetik irteteko baimenik eskuratu behar denik, eta irteerek zenbat iraun behar duten ere ez da aipatzen. Beraz, Arartekoaren iritziz, ezerk ez zion kexagileari eragozten Madrilera egun bakarreko irteera egitea.

4-. Horrez gain, adierazi dugunez, aztergai dugun kasuan, diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeaz batera, prestazio hori iraungi zitzaien egunetik zenbatzen hasita urtebetez hura berriro eskatzea debekatu zaio interesdunari, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatutako abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.1.e) artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Arartekoaren ustez, horrek gastu gehiegi eragingo lizkieke diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo/eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular diren familiei. Izan ere, ondorio horiek, batzuetan, Lanbidek ez-betetzetzat hartutako jardun batzuei dagokienean, proportzionaltasun printzipioaren aurka egingo lukete, urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 4. artikuluan jasotakoarekin bat eginez.

Erakunde honek pentsatzen du araudiaren aplikazio hori ez datorrela bat EAEko gizarte babeseko sistemaren helburuarekin, 18/2008 Legearen 1. artikuluan definitutakoarekin: *“Lege honen xedea da Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arautzea, eta, horren barruan, beharrezko prestazio ekonomikoak eta tresnak izateko eskubidea arautzea, herritar izateak dakartzan eskubide sozialak benetan baliatzeko orduan behar beste baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez dutenei laguntzeko, bai bazterkeria-arriskuari aurre egiten, bai bazterkeria pertsonala, soziala eta laborala arintzen, bai gizarteratzea errazten.”*

5.- Azkenik, aintzat hartuta prestazioen titularrak guraso bakarreko bizikidetzaren unitatea osatzen duela eta bi seme-alaba adingabe dituela bere ardurapean, erakunde honek berriz ere nabarmendu nahi du adingabearen interes gorena kontuan hartu beharra dagoela, Arartekoaren apirilaren 8ko 2/2015 Gomendio





Orokorrean² jaso zenez. *Politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman.*

Gomendio horretan, Arartekoak araudiaren aplikazioa aztertu zuen, aintzat hartuta haurren gaitan hitzartutako nazioarteko tresnak. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena barneko zuzenbidera sartzeak adingabearen interes gorena kontuan hartzea dakar, eta araudia Haurren Eskubideen Batzordeak ezarritako parametroei jarraituz interpretatu eta ezartzera behartzen ditu botere publikoak.

Halaber, gomendio horren bidez, Arartekoak Europako Batzordearen "Haurrengan inbertitzea: desabantailen zikloa haustea" gomendioa³ ere aipatu zuen. Dokumentu horrek gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko sistemak haurren bizitzan garrantzi handia duela azpimarratzen du, besteak beste. Gainera, nabarmentzen du, familiak jasotzen dituen prestazioak gurasoetako baten jokabidearen arabera direnean, gurasoen jarduketa aztertzean zuhurtasunez jokatu beharra dagoela eta, besteak beste, neurri horiek izan dezaketen eragin negatiboa ebaluatu behar dela.

6.- Laburbilduz, adierazitakoa aintzat hartuta, Arartekoak berriz ere dio diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria erregulatzen dituen araudiak ez duela ezartzen EAetik kanpora egindako irteerak jakinarazi behar direnik, ez eta aldi baterako baimena eskuratu behar denik bidaiatzeko; gainera, interesduna egun bakarrez joan zen Madrilera, justifikatutako arrazoi bat zela-eta, bere eta seme-alaben pasaporteak berritu behar zituelako.

Horrenbestez, Arartekoak uste du Lanbidek ez ziokeela interesdunari diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eten behar, are gutxiago aintzat hartuta prestazioa iraungitzeko kausa dela hori eta ondorio larriak dakarziola bizikidetzaren unitateari; izan ere, horren ondorioz, bi adingabe bere ardurapean dituen guraso bakarrek familia hori ezin izango da urtebetez diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular izan.

² **Arartekoa.** Arartekoaren 2/2015 Gomendio Orokorra, apirilaren 8koa. Politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman. [online]. Hemen eskuragarri:

http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_3662_3.pdf

³ **Europako Batzordea.** Batzordearen gomendioa, 2013ko otsailaren 20koa. Europar Batasuneko aldizkari ofiziala, 59/5 L. [online]. Hemen eskuragarri:

http://publications.europa.eu/resource/cellar/9a28f23b-84c3-11e2-89d6-01aa75ed71a1.0007.04/DOC_1



Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Enplegu eta Gizarte Politika Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan xedatutakoaren arabera:

Gomendia

Arartekoak diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeko ebazpena indargabetu dezan gomendatzen dio sail horri. Izan ere, ez dago prestazio hori iraungitzeko arrazoirik, egiaztatu baita bigarren etenaldiak ez duela behar adinako lege babesik, eta ondorioztatu baita iraungitze horrek dakartzan ondorioak neurritz kanpokoak direla eta ez datozela bat adingabearen interes gorena errespetatzearekin.

